

BALOREZKO PROPOSAMENA

Maddi, Aitzol, Yasser, Cristina eta Urko gara, guk aurrera eraman behar dugun proiektuaren helburua gasolinaren erabilera murriztea da, horrela ingurumenari lagunduko diogu eta kutsadura gutxiago sortuko da.

Honetarako, elektrizitatea eta gasolina erabiltzen dituzten kotxeetan landuko dugu gure proiektua. Airea xurgatzen du kotxearen ahurrealdeko zerrailetatik, eta aire hau gure piezaren nukleora doa. Honek haize errota moduko bat mugiarazten du eta energia zinetikoa energia elektrikoan eraldatzen da. Energia honekin batera kargatzen da, honen iraupena luzatuz.

Sortutako sistema hau haize errota batek bezala funtzionatzen du, geroz eta aire gehiago xurgatu, geroz eta abiadura handiagoa izan kotxeak geroz eta aire gehiago xurgatu eta energia elektriko gehiago sortuko du. Beraz, bidaiak luzeetan honen erabilera errentagarria izango da, kotxeak haize gehiago hartuko du, eta horrekin elektrizitate gehiago edukiko du kotxeak denbora gehiago bidaiatzeko. Aireak kotxearen aurrealdeko saretatik hartuko luke eta inbentua motor barnean kokatuko zen.

Kotxe elektrikoaren arazoetako bat batera gastatzean geldialdi bat egin behar duzula hau kargatu dadin, eta karga honek 4-12 ordu iraun ditzake. Arazo hau batzuentzat eragozpen bat da, eta arrazoi bat kotxe elektriko bat ez erosteko. Gure produkturen erabilgarritasuna kotxe elektrikoetan egiten diren bidaiak luzeagoak izatea da, hau da, errekaratu gabe gehiago iraun dezan.

Kotxe bakoitzerako produktuaren tamaina eta forma ezberdinak izango dira, baina funtzionamendua berdina izanez. Beraz produktuaren hainbat forma ezberdin egin beharko ditugu, zeren eta kotxeen motore guztiak ez dira tamaina berekoak, beraz gure produktuaren tamaina handiagoa edo txikiagoa izango da, baina honen erabilera aldatu gabe.